



2022ko maiatza

IPAR euskal HERRIKO PREKARITATEEN BEHATOKIA

#1

Prekaritate larria bizitegiari
eta ostatalekuari dagokienez:
hunkitutako jendeak eta ekarritako ihardespenak



aurkibidea



Editoriala	3
Sar-hitza	4
1. - Zein dira hunkitutako jendeak?	7
1.1 - Nor dira jende horiek?	8
1.2 - Zenbait orientazio-iturri	10
1.3 - Aterperik gabeko jendeak: gaizki ezagututako eta kausitu beharreko jendeak	13
1.4 - Eguneko Harrera Guneak, eguneko baldintzarik gabeko harrera, otordu arinen eta higienarako zerbitzuen inguruan	13
2. - Zein dira ekarritako ihardespenak?	15
2.1 - Zein dira oraingo egunean ekarritako ihardespenak?	16
2.2 - Eragileak	16
2.3 - Aldi baterako ostataleku eta bizitegien eskaintzaren egituraketa	17
2.4 - Zein dira jokagai zehatz batzuei ekarritako ihardespen berriak?	18
2.5 - Elkargoari bakarrik ez dagozkion ihardespenak	19

Argitalpenean parte hartu dutenen aipamena

Idazketa eta diseinu grafikoa

2022ko urtarrila – Euskal Elkargoko Gizarte Ekintzako Zentroak (EGEZ) egina, AUDAPekin batera.
Orrialdearen prestatzea: Flora Roliers.

Ekarpenak: DDETS, Atherbea, Soliha, Habitat et Humanisme, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua, HSA, Ipar Euskal Herriko Gizarte Ekintzako Udal Zentro (GEUZ) handienak.

Argazkiak

Côté Sud Photo, Z Studio, Mathieu Prat, Shutterstock, Comédia.

Piktogramak

AUDAP Creative Commons lizentziapean BY-NC-SA 4.0,
Settings and House by Gregor Cresnar, James Fenton and Ralf Schmitzer from The Noun Project.

Frantsesetik euskararako itzulpena

Euskal Elkargoa, Txomin Urriza Luro.

EDITORIALA

Euskal Elkargoa sortu orduko, aho batez erabaki genuen gizarte ekintzaren arloan esku hartzea; bereziki horretarako sortu genuen Euskal Elkargoko Gizarte Ekintzako Zentroa (EGEZ). EGEZen egitekoa da adineko jendeen eta ahalmen urritasuna duten jendeen beregaintasuna sustatzea eta prekaritate egoeran diren pertsonei laguntza hobea ematea.

Helburu horiek ere betetzeko sortu zen Prekaritateen Behatokia; aspaldidanik igurikatzen zuten arlo horretan lan egiten duten eragileek, eta egun horretan azkarki parte hartzen dute. Izan ere, baitezpadakoa da lehenik prekaritate egoera horiek hobeki ezagutzea, ondotik haiek hobeki tratatzeko, haiei hobeki buru egiteko eta eztabaida publikoa zehaztasunez argitzeko. Gaiari buruzko funtsezko datuak bilduz, behatoki honen helburua da gure lurraldeko egoeraren berri ematea; alabaina, pobrezia mailaren petik bizi da familien %11,9, hots, 17.400 familia inguru. Helburua da ere prekaritate egoeran diren pertsonei buruzko zenbait irudikapen aldatzea, eta baita egoera zail horiek eragin dituzten arrazoiei buruzko zenbait irudikapen kanbiatzea ere.

Lehen edizio honetan, larrialdietako bizitegiei eta ostatalekuei buruz arituko gara, zeinak lurren eta etxeen merkatuaren tentsioen eraginpean baitira. Izan ere, larrialdietako bizitegi batzuek hasierako helburua gal dezakete, ostatu hartu nahi duten pertsonek ez baitute erantzunik aurkitzen bizitegi sozialen multzoan. Biztanleriaren etxebizitza eskubidearen aldeko gure ekintzen ildoari jarraikiz, funtsezko zenbaki adierazle hauen bilakaerari erne egonen gatzaio.

Behatoki honen helburua ekintza sustatzea da. Jende guziei zuzentzen zaie, hots, elkargoko hautetsiei, herrietako hautetsiei, gizarte arloko eragileei eta gure lurraldeko biztanleei. Izan ere, edizio honetako adibide batzuek erakusten dutenez, herritarrek gizarte ekintzan parte har dezakete. Alabaina, jende anitzen mobilizazioari esker, Ipar Euskal Herria elkartasun lurralde gisa ezagutua da. Bada, orain, elkartasuna gure lurralde proiektuaren parte da eta ekintza horiek hazten dute.



©Côté Sud Photos

Jean-René Etchegaray

Président de la
Communauté Pays Basque
et du CIAS Pays Basque



1 - SAR-HITZA

PREKARITATE LARRIA BIZITEGIARI

ETA OSTATALEKUARI DAGOKIENEZ:

JOKAGAI NAGUSIAK ETA IHARDESPEN SALAKERAK.

Euskal Hirigune Elkargoak Euskal Elkargoko Gizarte Ekintzako Zentroari (EGEZ) **gizarte garapeneko** eginkizuna bete dezan galdatu dio, **autonomiaren** (adineko jendeak, ahalmen urritasuna duten jendeak) eta **prekaritatearen** arloetan. Bigarren eginkizunak ahala eman behar du proiektuak eta esperimentazioak sustatzeko, zeharka lan eginez, Euskal Elkargoaren politika publikoen arabera (bizilekua, mugikortasunak, garapen ekonomikoa...), eta arlo horietako eragile batzuekin lankidetzan, hots, zenbait elkarte, eragile pribatu edo publikorekin.

Horretarako, 2020an, Ipar Euskal Herriko **Prekaritateen Behatokia** abiatu zen. Honen nahia da **tresna pedagogikoa**, sentsibilizaziokoa eta kontzientzia hartzen laguntzekoa izan dadin, eta lehenbailehen jakintza, diagnostiko eta analisi partekatuak sor ditzan. Informazio **kuantitatiboetan** nahiz **kualitatiboetan** oinarritzen da, eta existitzen den datu kopuru urria kontuan harturik neholatu ere ez du informazio osoa izateko asmorik.

Helburua da tresna partekatua sortzea, **lurraldeko erakunde, hautetsi eta partaideei** beren orientabideak zehazten, politika publikoak aplikatzen edo prekaritatearen kontrako haien engaiamenduekin lotutako ekintzak gauzatzen laguntzeko, baina baita **jendea oro har** sentsibilizatzeko ere.

Lehen edizio hau prekaritate larriari eskaintzen zaio, **larrialdietako ostataleku eta bizitegien egoera kontuan harturik**. Izan ere, gai horren inguruan jokoan dena arras garrantzitsua da; baina, aldi berean, gai konplexua da ere, existitzen diren dispositibo guztiak direla medio. Konplexua da, halaber, zaila delako bizi ibilbide ez-linealak dituzten zenbait jende ezagutzea, jende haiek ez direlako "gure ohiko eskemetan" batere sartzen, eta, haiek laguntzeko bide berriak bilatu behar direlako.

Euskal Elkargoko Gizarte Ekintzako Zentroak (EGEZ) jalgitako batzorde berezi bat erregulariki bildu da 2020tik. Batzorde horren lana izan da datu ugari baina sakabanatuak bildu, hautatu eta aztertzea. Aldi berean, Ipar Euskal Herriko zenbait eragile nagusi entzun dira (Atherbea, SOLIHA, Habitat eta Humanisme, Habitat Sud Atlantic), eta Gizarte Ekintzako Udal Zentroetan (GEUZ) ikerketa egin da. Eskerrak haiei ekarpenak egiteagatik eta solasaldi mamitsuak eskaintzeagatik.

> 2020ko zenbaki adierazleak



1361

jendek eskaera egin
zioten SIAOri



250

jende aterperik gabe
euskal kostaldean
(Atherbearen arabera)

1/3

haurrak dituzten
familiak dira



1018

legezko bizileku
Ipar Euskal Herriko
GEUZetan



%37

legezko bizileku
Baionan eginak

6

hilabete

igurikatu behar dira gutienez,
leku bat eskuratzeko CHRSean









#1
zein DIRa
HunkITUTako
Jendeak?

1.1 - NOR DIRA JENDE HORIEK?

Pertsona Behartsuei Bizitegi eta Ostatu emateko Departamenduaren Ekintza Planak bizitegi arazoak dituzten jendeak identifikatzen ditu, hala nola:

- behar mediko, psikiko eta sozial gorrian diren aterperik gabeko pertsonak;
- bizitegirik gabeko pertsonak;
- etxetik kanporatuak izateko arriskuan diren pertsonak;
- aldi baterako bizitegia edo ostatalekua duten pertsonak;
- bizitegi ez duinean edo prekarioan, edo bizitegia izateko ezegokiak diren lokaletan bizi diren pertsonak;
- beren bizitegian argi eta garbi sobera jenderekin bizi diren pertsonak;
- arazo anitzi buru egin behar dioten pertsonak, batez ere haien baliabideak edo bizi baldintzak ez direlako egokiak.

Pertsonen ibilbideak ez dira linealak, bizi istripuak, bizi aukera desberdinak edota unean uneko egoera guti edo aski konplexuak pairatzen dituztelako. Dokumentu honek, beraz, "laukitxo" edo ohiko eskemen diktadura ekidin nahi du. Haatik, laguntza dispositiboen bitartez, iturri tradizionalen bidez (biztanle kontaketa, adibidez) ezagutzeko zailak diren jendeak identifika daitezke.

Argitalpen honek bereziki aztertzen ditu bizitegiari eta ostatalekuari dagokien prekaritate larria, eta, beraz, bizitegirik gabeko edo aterperik gabeko pertsonen behar gorria.

> Eta asilo-eskatzaileak, zer?

Asilo-eskaeraren gaia oso garrantzitsua eta zehatza den afera da; araudi berezi bati erantzuten dio, baina hertsiki lotua zaio bizitegiari edo ostatalekuari dagokien prekaritate larriaren arazoari.

Harrera estatuak babes juridikoa eman diezaioke geriza bila dabilen pertsona bati, pertsona hura bere herrialdean pertsegitua edo mehatxupean izatearen beldur delako. Atherbeak kudeatzen du Ipar Euskal Herriko Asilo-Eskatzailleendako Harrera Zentroa (CADA). Zentro horrek gehienez 96 pertsona har ditzake. Urtean 130 eta 150 pertsona artean hartzen ditu, eta egonaldiak batez beste 14,2 hilabetekoak dira. Ipar Euskal Herriko etxeen merkatuaren tentsioak arras mugatzen du lurralde honetan asilo-eskatzaileei eskain dakiekeen toki kopurua, Estatuak azken urteotan lehenagotik tokiak sortzeko proiektu deialdiak argitaratu arren. Zuzenean eragiten die, halaber, errefuxiatu estatutua lortu eta molde iraunkorrean hemen gizarteratu nahi duten pertsonen, sarritan baliabide guti izaten baitituzte eta ondorioz ez baitute bizitegirik kausitzen.

Gai oso zehatz hori ez da beraz argitalpen honetan aipatuko.



©Mathieu Prat



BIZI IBILBIDE Baten adibidea

Sandrine, alokatzailea

*Les Dryades bizitegi
eraikinean, Angelun.*

*Habitat et Humanisme,
berripaperaren
6. alea 2020ko urria*

Jatorriz Ariègekoa naiz. 2017ko irailean, Ipar Euskal Herrian bizi zen nire alabari hurbildu nintzaion. (...) 2017ko ekainetik, HLM eskaera txosten bana aurkeztu nuen Pirinio Atlantikoetako eta Landetako departamenduetan. (...) Erantzuna ukan artean, 2018ko martxotik azarora, etxekide batzuekin bizi izan nintzen (...). Baina, idazle publikoa izanik, arras zintzoki mintzatzeko, ez nuen dirurik aski irabazten; beraz, idazkaritzara buruz itzuli nintzen. (...) Zoritzarrez, orduan, Pôle Emploi-ko nire eskubideak bururatu ziren eta etxekideekin nuen bizitegia utzi behar izan nuen. (...) Bizitoki pribatuen multzoa garestiegia zenez, Un Toit pour Tous elkartearekin harremanetan jarri nintzen. DALO* (Etxebizitzari lotutako eskubideei buruzko legea) dosierra bete eta eskaera egin genuen; baina, instrukzioa oso luzea da, 3 eta 6 hilabete artekoa! Ufa! Kinka gaiztoan nintzela ohartu nintzen, eta nire osasunean ondorioak agertu ziren. Ospitalean egon nintzen, 6 hilabetez. (...) Denboraldi horretan, ez nuen amore eman, eta bata bestearen ondotik heldu ziren bizitegia bilatzeko hitzorduak, bisitak eta telefono deiak. Behin eta berriz ezezko erantzunei buru egin behar izan nien, eta, orduan, Baionako GEUZaren legezko bizitegia hartu behar izan nuen. Horra: ofizialki aterperik gabekoa nintzen, eta nire eskaera guziek bide luze, motel eta okerrei jarraikitzen zieten. (...)

*DALO, definizioa 11. or.

Egun batez, klinikan, gizarte arloaren ardura zuen erizainak SIAOri buruz hitz egin zidan. Zera pentsatu nuen: SIAOren ostatalekuetan leku bat libratuz gero, egonaldiak gehienez bi aste iraun zezakeen, baina, bederen, klinikatik joan nintekeen. Laster, Maison de Gilles-en, Biarritzen, hotel sozial moduko batean aterpetua izan nintzen. (...) Anartean, jakin nuen nire DALO dosierra batzordean onartu zutela! lupi! Baina, halere, ez nintzen gehiegi poztu: lehentasuna banuen, bai, baina ez nintzen bakarra! (...) Maison de Gilles-en iragan bigarren astearen hasieran, Sandra hezitzaileak erran zidan menturaz berri ona zuela niretzat: Habitat et Humanisme elkarteak apartamentu bat proposatzen zuen belaunaldien arteko etxe batean, 6 hilabetetik 3 urtera bitarteko alokatze kontratu batekin. (...) Kontratu mota horren arabera, alokatzaileak hitz ematen du eraikineko "komunitatearen" bizian parte hartuko duela (...). Eta, batez ere, kontratu hari esker, 3 urte luze irabazten nituen, bizitegi sozialaren eskaria asetzeko. Hala, 2019ko apirilean, Villa Marie-ra bizitzera joan nintzen (...). 2019ko irailean, jakin nuen azkenean T2 bat esleitu zidatela Angelun. (...) Zenbait pertsonak jakinarazi zidaten, bizitegi pribatuen multzotik kanpo, hiru urte inguru behar zirela bizitegi bat eskuratzeko. Erotzat hartzen nituen. Uste nuen arrunt ezkorrak zirela... Ondorioa: lehen eskaera egin eta hiru urtera atzeman nuen bizitegia.



1.2 - ZENBAIT ORIENTAZIO-ITURRI

> 115

Aterperik gabekoentzat den estatu mailako urrikako telefono zenbakia da 115a. Pirinio Atlantikoetako Departamenduak kudeatzen du, Paueko Organisme de Gestion des Foyers Amitié (OGFA) erakundeak, zehazki. Telefono zenbaki hau **gizarte larrialdi egoeran den** edo gizarte larrialdi egoeraren berri eman nahi duen **edonorentzat** da. Zenbaki horretara deitzen duenak berehalako erantzuna jaso behar luke.

> SIAO

Harrera- eta Orientazio-Zerbitzu Integratua (SIAO) orientazio-plataforma bat da, ostataleku edo bizitegi egokitua eskuratzeko eskaera egin duten eta prekaritate egoeran diren jendeentzat. Plataforma bakar horri esker, GEUZetan, ospitaleetan, Departamendu Kontseiluan eta bestelakoetan **jendearekin lanean ari diren gizarte langileek ahala dute ostatatze eskaerak egiteko** eta larrialdi egoeratik gizarteratzeko trantsizioa sustatzeko. Plataformaren helburu nagusia da bizitegia eta ostatalekua bilatzeko desmartxak erraztu eta ostatalekutik bizitegira pasatzeko urratsak arintzea. Ipar Euskal Herrian, Atherbeak du kudeatzen. Batzorde batek hilabetean bi aldiz erabakitzen du eskaerak onartzea ala ez, eta, hari esker, eskaerei laster erantzun dakieke. Aldiz, eskaera onartu eta zenbait aste berantago sartzen da jendea bizitegi edo ostataleku berrira, eskaintza eskaeraren azpitik dagoelako. Bestalde, ostataleku eskaintza apalaren arazoa konpondu beharreko afera dela aipatu behar bada ere, ohartarazi behar bada ostatalekuetatik nor bere bizitegira pasatzearen arazoa ere konpondu behar dela.

> Legezko bizileku eskaerak

Legezko bizilekua izateak –nork bere helbidea hautatzeak– ahala ematen dio bizitegi iraunkorrik ez duen edo etxegabea den edonori helbide administratiboa izateko, gutunak eskuratu eta zenbait eskubide eta laguntzaz baliatu ahal izateko. Legezko bizilekua urtebeterako ematen da, eta GEUZek, Gizarte Ekintzako Herriarteko Zentroek (GEHZ) edo prefetak onetsi erakundeek berrizta dezakete (Atherbeak 20 legezko bizileku izateko onespina du, GEUZek dituztenen osagarri).

2020, ezohiko urtea, ihardespén berriak

2020an, dispositibo bereziak sortu ziren, COVID-19aren mundu mailako pandemiaren kariatara. Neguko geldialdia luzatu eta ostatalekuak ireki ziren, behar gorriak zituzten jendeak konfinatzeko (Notaryn, Biarritzen; Laugan, Baionan; Hendaian).


Horren ondorioz, SIAOri egin eskaerak apaldu dira (1509 pertsona 2019an eta 1361 pertsona 2020an), eta, argi eta garbi, urgentziatzko eskaerak ere (SIAOri egin eskaera orokorraren %81etik %64ra). Bestalde, duela zenbait urtetik hona, pertsona batzuek uko egiten diote Ipar Euskal Herrian bizitegia edo ostatalekua bilatzeari, igurikatze epea luzeegia eta egin beharreko desmartxak korapilatsuegiak direlako...

Baionako Geuza

Baionan legezko bizilekua izateko eskaerak azkarki emendatzen dira neguan.

Azken urteotan, gora egin dute Baionan legezko bizilekua izateko eskaerak, Frantziara lan bila etorri eta Espainian familia utzi duten espainiarren aldetik.





> *Eta DALO, zer?

Etxebizitzari lotutako Eskubideei buruzko DALO legearen helburua da fede oneko pertsona bati **bizitegi duina** eta independentea **izateko eskubidea bermatzea**, baldin eta pertsona hori ez bada bizitegi hori bere kabuz aurkitzeko edo bizitegi horretan irauteko ahalan, eta pertsona horren egoerak legean aurreikusitako baldintza batzuei erantzuten badien. Aldiz, Ostatalekua izateko eskubidea, aldi baterako ostataleku batean, bizitegi batean, egoitza batean, ostataleku-zentro batean edo gizarte xedea duen hotel batean (DAHO) ostatu hartzeko eskubideari dagokio. Eskubide horiek Bitartekaritza Batzordean aurkeztutako onez oneko errekurso baten bidez gauzatzen dira. Batzorde hori departamendu bakoitzean dago eratuta. Batzordeak eskaeraren lehentasunezko izaerari eta eskatzaileari bizitegi bat (edo gizarte xedea duen hotel batean ostataleku bat) esleitu beharraren urgentziari buruzko iritzia ematen du. Bitartekaritza Batzordeko idazkaritzak DALO errekurso bat tratatzeko legezko epea 3 hilabetekoa da, dossier osoa jasotzen duenetik batzordeak aztertzen duenera arte (epe hori 6 astekoa da DAHO errekurtsorako).

ZENBAKI BATZUK, 2020an, Pirinio Atlantikoetan: 290 errekurso inguru (ezohiko urtea izan zen, osasun egoera bereziagatik; normalean 500 eta 600 errekurso artean aurkeztzen dira).

- **Arrazoi nagusiak:** %37,5, bizitegirik gabeko pertsonak; %19, egituretan ostatatutako pertsonak; %16, bizitegi ez duinetan edo jende gehiegi bizi den bizitegietan bizi diren pertsonak.
- **Familien tipologia:** gehienak bakarrik bizi diren pertsonak edo buraso bakarreko familiak.
- **Eskatzaileen adina:** eskatzaileen erdiak baino gehiagok 41 eta 64 urte bitarte dituzte (%40, 41 eta 55 urte bitartean); %35ek 40 urte baino gutiago dituzte eta %10ek 65 urte baino gehiago.

2008 eta 2014 urteen artean, departamenduko Bitartekaritza Batzordean errekurtsua aurkeztu zuten eskatzaileen %87 euskal kostaldean bizi ziren.



ERAGILEEN BEHAKOA ATHERBEA



©Atherbea

Pantxika Ibarboure

Atherbearen
zuzendari nagusia

Elkarteak hartzen ditu nekezia diren pertsonak, bizitegirik gabeak, baliabiderik gabeak eta lanik gabeak, bakarrik edo seme-alabekin. Helburua da haien gizarteratzea sustatzea.

Nortasun agiria

1954an sortutako elkarte
Tel. zk. : 05 59 52 55 00
association@atherbea.fr

Zer jende hartzen duzue?

Jende mota bat baino gehiago hartzen dugu;

- 115ari dagokionez, aterpetze eskaerak gizartetik arras bereizi diren jendearentzat egiten dira, eta gehienak bakarrik diren gizonak dira.
- SIAOri dagokionez, prekaritate egoeran den jendea da (gutiengo sozial aktiboen hartzaileak ala ez), eta, batez ere, 115ari konparatuz gero, jende mota anitzagoa da (bakarrik diren pertsonak, buraso bakarreko familiak, familiak, bikoteak), arazo sozia- lei, osasun-arazoei, bizitegi bat eskuratzeko edo bizitegi horretan irauteko arazoei buru egiten dion jendea. Pertsona horiek laguntza sozial orokorra behar dute, haie- tan bizitegi iraunkorra eskuratzeko laguntza.

Ikusi ote duzu bilakaerarik (kuantitatiboa eta kualitatiboa) jende horien tipologian azken urteotan?

Bai, zenbait gauza ikusi ditugu:

- indarkeria egoerak nabarmen areagotu dira (senar-emazteen artekoak edo familia barnekoak);
- bizitegi galtzeak (kanporatzeak, beste baten etxean ostatu hartzea) edo bizitegi arazoak (duintasun eza, sanotasun eskasia) biderkatu dira;
- batzuentzat osasun arazoak arras kezagarriak bilakatu dira;
- gazteen kopurua emendatu da;
- baina baita zaharren kopurua ere, biztanleria osoaren bilakaeraren isla.

Ikusi dugu ere eskaerak eremu geografiko zabalagoan egin direla. BABen egiten dira oraindik ere eskaera gehienak (%69, 2020an), baina, Hego Lapurdiko kostaldetik eta Ipar Euskal Herriko barnealdetik datozen eskaerak emendatu dira, nahiz eta han eskaintza oso ahula izan.

Zure ustez, zerk eragiten du eboluzio hori?

Faktore anitzeko problematika horrek, aldi berean, pertsonen bizi historiaren osagaiak eta alderdi ekonomiko eta sozialak uztartzen ditu. Izan daitezkeen azalpenen artean, nabarmenduko nituzke horietaz ez baliatzea dakarren eskubideak eskuratzeko sistema korapilatsua eta jendea deliberatuki prekaritate egoeretan mantentzea.

Isolamenduak eta bizitegi arazoen (auto)bazterketaren gorpil zoro eta iluna ibilarazten dute; bizitegi arazoen isolamendua eragiten dute, eta isolamendua zailtasun iturri da bizitegi bat eskuratzeko edo bizitegi batean irauteko.



1.3 - aterperik gabeko jendeak, gaizki ezagututako eta kausitu beharreko jendeak

(Atherbea zenbakiak)

Baiona-Angelu-Biarritzen (BABen): Atherbearen langile talde mugikor bat joaten da aterperik gabeko jendeen, gizartetik bereizi diren pertsonen edota azken bi urteetan BABeko sektoreko dispositiboekin harremanik batere ukan ez duten jendeen kausitzera. Karrikako talde ibiltari hori Estatuak finantzatzen du, SNCF erakundearen laguntzarekin.

- 199 pertsona kausitu ziren 2020an (haietan 12 bikote): %22 emakumeak ziren eta %78 gizonak.
 - haietarik %19k ostataleku bat zuten, baina beti egoten ziren etxegabeak biltzen ziren lekuetan.
 - haietan 81% aterperik gabekoak ziren: bederatzik ibilgailuan lo egiten zuten, hamahiruk aparkalekuetan, hogeita zazpik okupatutako bizitegietan, hiruk oihal-etxoletan eta ehun eta zazpik karrikan.
 - haietan berrogeita hamar bat lagunek ez zuten inoiz 115 zenbakira deitzen, gaineratekoak batzuetan karrikan bizi ziren eta besteetan laguntza dispositiboetan aterpetzen ziren.

Hendaia buruzko puntua: lehen konfinamenduaren ondotik plantan ezarritako 3 hilabeteko behaketa-misioa (2020ko azken hiruhilekoan).

- Testuingurua: Hendaiaiko Herriko Etxeak Atherbeari dei egin zion, tokiko bizitzaileen eta jende bazter-tuen arteko kalapiten ondorioz.
- Dispositiboa: karrikako bi hezitzaile jendeekin bildu ziren, haien egoera eta beharrak ulertzeko.
- Egoera:
 - askotariko ostatatze baldintzak eta baliabideak zituzten 50 pertsona baino gehiago identifikatu ziren,
 - prekaritate larrian zen jendea zen,
 - harremana erraza izan zen eta pertsona haiek hezitzaile taldea laster identifikatu zuten.
- Behar bereziak zerrendatu ziren:
 - laguntza eta sostengu sozial orokorra eta partaideen arteko baitezpadako koordinazioa,
 - bizileku iraunkor eta indibidualen beharra, zeina gizarteratzea bultzatzeko funtsezko urratsa baita,
 - osasun zerbitzuetarako sarbidea:
 - jende mota horiek hartzeko prest diren hiriko medikuak identifikatzea,
 - Donibane Lohizunera edo Baionara joateko garraio txartelak ematea,
 - karrikako langile talde bat eratzea, jende horiek leku horietara fisikoki laguntzeko.
- 2022an, Estatuaren dirulaguntzari esker, Atherbeak karrikako langile talde higikor bat plantan ezarriko du, eskualde horretan. Gainera, larrialdietako hamabost ostataleku irekiko ditu.

m. Jauna
45 URTE

"Nire auzokoak?
Ez dakit, ez
ditut ezagutzen.
Sukaldea? Eeeh...
Badakizu, nire
apartamentua lo
egiteko baizik ez
dut erabiltzen. Ez
naiz sekula etxean
egoten. Itsuski
enoatzen naiz han".

200

pertsona
BABen

50

pertsona
Hendaian

1.4 - eguneko harrerara guneak, eguneko baldintzarik gabeko harrerara, OTORDU arinen eta higienarako zerbitzuen inguruan

4 Eguneko Harrera Gune daude Ipar Euskal Herrian: Hendaia, Donibane Lohizune, Baiona eta Biarritzen.

- Eginkizuna: egunean zehar, gehienetan gizartetik bereiz, okupatutako bizitegietan edo bizitegia baduten baina noraezean bizi diren pertsonak hartzea.
- Baldintzarik gabeko harreraren araua, eskakizun-maila apalarekin: pertsonak errezibitzen dira haien egoera edozein izanik ere, aitzinetikako eskakizunik gabe eta inolako proiekturik igurikatu gabe.
- Jende mota: 18 eta 80 urte arteko pertsonak, eta ez soilik noraezean edo karrikan bizi direnak. Oro har, 4 jende mota hartzen dira:
 - Aterperik gabeko jendea, karrikan, ibilgailuan edo okupatutako bizitegian lo egiten duena;
 - Prekaritate egoeran diren langileak;
 - Migratzaileak (migratzaile ekonomikoak, klimatikoak edota politikoak);
 - Gizartetik bereiz diren pertsonak.

Azken urteotako egiaztapena: gero eta adingabe eta prekaritate egoeran diren langile gehiago


45 000

iragate 2019an
Ipar Euskal Herriko
Eguneko Harrera
Guneetan

2000

pertsona lagundurik
2019an


2019ko zenbakiak erabili dira, 2020koak ohiz kanpokoak izan zirelako (konfinamenduari lotutako heste-aldiak eta dispositibo espezifikoak).



#2
zein DIRa
eKaRRITaKo
IHaRDeSPeNaK?



2.1 - ZEIN DIRA ORAINGO EGUNEAN EKARRITAKO IHARDESPENAK?




2.2 - ERAGILEAK

Estatua	Departamendua	Euskal Elkargoa	Herriko Etxeak	Atherbea	SOLIHA	Habitat et Humanisme	La Sauvegarde de l'Enfance à l'Adulte du Pays Basque	Jabeak* / HLM alokatzaileak
- Honakoaen finantzaketa osoki ala partez: familia-pentsioetako lekuak (bitartekaritza etxeak eta harrera-egoitzak), CHRSetako lekuak, ALTetako lekuak eta SIAO. - Honakoen finantzaketa: larrialdietarako ostatalekuak, neguko lekuak, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako lekuak, IMLetako lekuak eta eguneko harrerak. - Gizarte-zaintzaren eta ostatatzearen arloko eragileen koordinaketa eta animazioa.	4 Eguneko Harrera Guneen finantzaketa. - CHRS eta Maison de Gilles-en finantzaketa.	- Ekipamendu finantzaketak. - Lokalak eragileen esku ezartzea.	- Bizitegiak eta lokalak eragileen esku ezartzea: - Hotzaldiaren kontrako plana eta neguko lekuak - Larrialdietarako ostatatzea - Aldi baterako ostatatzea (adibidez, apartamentuak: Biarritz 32, Angelu 10, Hendaia 3-4, Donibane Lohizune 1)	- Kudeaketa eta animazioa: - SIAO; - Maison de Gilles; - Aterpetzea: (Manuit, Ene tokia); - CHRS Atherbea / Les Mouettes; - Eguneko harrera guneak (Baiona - Biarritz); - Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako lekuak (40 leku); - Gazteendako zerbitzua (16 bizitegi).	- Ekipamenduen kudeaketa: - Bitartekaritza etxea; - ALT; - IML; - Helburu sozialeko etxe agentziak.	IML-en kudeaketa	Bitartekaritza etxeen kudeaketa.	Bizitegi barreiatuak jendeen esku ezartzea.

*ez dira ahanzi behar nekezian diren pertsonen ostataleku edo bizitegia eskaintzen dieten familia barneko eta bestelako elkartasun keinuak.

2.3 - ALDI BATERAKO OSTATALEKU ETA BIZITEGIEN eskaintzaaren egituraketa



ALDI BATERAKO OSTATALEKU ETA BIZITEGIEN eskaintza

Ipar Euskal Herrian, hoteletako ostatatzeen erabilpena mugatua da. Izan ere, kontuan hartu behar da tokiko elkargoak azkarki inplikatzeko direla neguko dispositiboan. Horri esker, aterpetzeko leku anitz irekitzen dira (2021ean). Erran behar da ere Ipar Euskal Herriko hotelekin lan egitea zaila dela, gaudien kostuarengatik eta errezibitu beharreko jende motarengatik (gaur egun hotel bakar batek egiten du lan 115arekin). Hoteletako lekuetan lehentasuna ematen zaie indarkeriaren biktime diren emakumei eta haur ttipiak dituzten familia batzuei. 2021ean, guti gorabehera 1938 gaudia izan ziren, eta kostua 28005 eurokoa izan zen.

Eskaintza egon badago, baina:

- oso bildua da geografikoki eta, partikularki, BABen;
- oso eskasa da eskaera guzietan erantzuteko. Hala, larrialdiko edo gizarteratzeko ostataleku bat eskuratzeko epeak oso luzeak dira (8 eta 10 asteren artean hotel sozialerako, 6 hilabete CHRS kolektiboko leku baterako, 12 hilabete arte bizitegi barreiatuko leku baterako). Bestalde, Ipar Euskal Herrian, larrialdiko edo gizarteratzeko ostatalekuetako egonaldiak Biarnokoak baino %40 luzeagoak dira, ostatalekutik ohiko bizitegitara pasatzeko zorroztasun estruktural handia dagoelako.

Bizitegi soziala, ohiko bizitegiarako sarbidea?

Ipar Euskal Herrian, 18500 HLM edo alokairu apaleko bizitoki baino gehiago daude. Bizitegi horien artean, 2240, hots, %12 baliabide oso apaleko edota prekaritate egoeran diren jendeak hartzeko finantzatu ziren, eta, haietan, 1000 bizitegi dira Alokatzeko eta Gizarteratzeko Alokairu Lagunduak (PLAI delakoak), hau da, bizitegirik sozialenak.

11600 familia baino gehiago daude HLM bizitegi baten zain (bizitegiz aldatzeko eskaera horietatik 3000 dagoeneko bizitegi sozialen multzoan bizi diren familiek eginak dira); familia horien bi herenak PLAI mugak baino baliabide tipikoak dituzte. Ipar Euskal Herrian, bizitegi sozialen multzoaren tentsio-adierazleak nabarmenak dira. Izan ere, batez beste 21 hilabete igurikatu behar dira bizitegi sozial bat eskuratzeko (Frantziako Estatuan batez beste 14 hilabete igurikatu behar direlarik).

Tokiko Bizileku-Programa (TBP)

Tokiko Bizileku-Programa (TBP) Ipar Euskal Herriko 158 herrien eskalan ezarrita dago. Sei urterako zehazten du lurraldearen bizileku-politika: bete beharreko helburuak (bereziki, bizitegiak sortzeki eta berritzeari dagokionez, edo ostatalekuak garatzeari dagokionez), lehentasunak eta mobilizatu beharreko dispositiboak, lurraldeen eskaintza modu orekatuan eta dibertsifikatua banatuko dela bermatzeko, gizarteko aniztasuna eta hiri-garapena sustatuz. Lehen TBP horrek boluntarista izan gogo du, eta, hala, bizitegi sozialen arloan hartutako gibelamendua harrapatzeko ahalegina egin nahi du. Horrela, higiezin operazio horiek eskaintza eta eskaria orekatzen lagunduko dute eta ibilbideak eta dispositiboak arintzen lagunduko dute. Prekaritate larriari dagokionez, aurreikusten da bigarren hotel sozial bati eta egokitutako bizitegi leku gehigarri (IML, familia-pentsioak) buruzko azterketa egitea, bereziki Ipar Euskal Herri barnealdean. Estatuak finantzatutako larrialdiko ostatalekuak dagokionez, Estatuak orientabide estrategikoak apaltzen ari dira, azken bi urteotan Ipar Euskal Herrian 80 leku gehiago finantzatu ondoan.

2.4 - ZEIN DIRA JOKAGAI ZEHATZ BATZUEI EKARRITAKO IHARDESPEN BERRIAK?

Tiny Houses-en adibidea

2020ko urtarrilean, Estatuak egin Interes Nazionaleko Manifestaziorako Deia irabazleetarik bat izan zen Atherbea elkarteak, bazterkeria egoera larrian diren pertsonentzako bizitegi modularren proiektuagatik. Estatuak, Euskal Elkargoak, Habitat Sud Atlantic bizitegi sozialen alokatzaileak eta Human'ISA XXI elkarteak (ISA-BTP Akitaniako eraikin eta obra publikoen goi mailako institutuko ikasleen elkarte humanitarioak) babesten dute proiektu hau. Ipar Euskal Herrian hainbat tokitara egokitu daitezkeen "tiny house" motako bizitegi modularrak egitea du helburu.

24 m²-ko zurezko bizitegiak

Osasun krisiarekin zerikusia duten murrizketa neurriak direla-eta, usaian mundu osoan misio humanitarioak egiten dituen Human'ISA XXI elkarteak, hemen berean engaiatu nahi izan du, eta, zehazki, proiektu horretan. Hala, otsailaren hasieran, 56 ikasle-ingeniari hasi ziren modulu higikorrek diseinatzeko. Thierry Girault arkitektoaren, HSAk enkargatutako ANCO kontrol-bulegoaren eta urrik lan egiten duten NOBATEK, TIKOAM eta OMHMA ikasketa-bulego espezializatuen laguntzarekin, 24 m²-ko moduluak diseinatu eta eraiki zituzten. Modulu hauen egitura nagusia zurezkoa da, teilatua altzairuzkoa eta isolamendua zura-zuntzekoa.



©CAPB - Comedia

10 pertsona ostaturik Tiny Houses-etan

Modulu horiek eraiki ondoan, HSAren esku utzi dira, hura baita operazioaren obragina, eta Euskal Elkargoak atzeman bi lursailetan ezarri dira, Baiona eta Biarritzeko hiriekin lankidetzan. HSAk bizitegi barreiatuetan ostatatzen dituen 10 pertsona instalatu dira etxe ttipi horietan, "Logement d'abord" planaren parte gisa (ikus behereko laukia).

Zein dira operazio hau gauzatzeko ahala eman duten faktoreak?

Hauk izan dira proiektuaren oztopoak bata bestearen ondotik altxatzeko aukera eman duten faktoreak: Proiektu hau arrakastatsua izan dadin osoki mobilizatu diren 4 partaideen (Atherbea, Habitat Sud Atlantic, Euskal Elkargoa, Human'ISA) engaiamendu humanoa, finantzarioa, logistikoa eta solidarioa. Lauak oso ongi koordinatu izana, arras epe laburrean. Eta partaideen arteko elkarrizketarako zinezko gaitasuna. Azkenik, proiektu honen arrakastaren faktore erabakigarria izan zen elkargoen, Euskal Elkargoaren eta Baiona eta Biarritzeko hiri ostatzailen sostengua, proiektu honen interes orokorra berretsi baitzuten.

Zein izan dira operazio honetarako oztopoak ala sustagarriak?

Bai, noski, oztopoak izan dira. Lehen oztopoa izan zen operazioaren eredu ekonomikoa: bere sailkapena dela-eta, orain arte ez dago bizitegi sozialean sailkatua, eta, beraz, ez du aukerarik ematen bizileku-politikaren zuzenbide komuneko dirulaguntza publikoez baliatzeko. Gainera, hirigintza-baimenei buruzko balizko auziak kontuan hartu behar izan ditugu. Bestalde, eskaera publikoaren mugek ere oso epe laburrak inposatu dizkigute. Azkenik, obrak kudeatzeko halabehar teknikoei buru egin behar izan diegu. Zorionez, pizgarriak ere izan ditugu. Ipar Euskal Herriko partaide anitzen ingeniariaritzaz baliatu ahal izan gara. Helburu bera bete nahi duen diziplina anitzeko laguntza horri esker, proiektu eredugarria, berritzailea eta federatzailea gauzatu ahal izan da, prekaritate larriko egoeran diren jendeen faboretan.

Zer atxikiko duzu gogoan?

Gogoan atxikiko dut operazio eredugarri hau zinezko lankidetzan egin dela, tokiko eragileen erabateko koordinazioan. Halako operazioak errepikatzen ahalko dira, nekezian diren jendeak kudeatzen dituzten elkarteek adierazitako beharren arabera. Ostatalekuetatik bizitegi pasatzeko ibilbideari ekarritako aterabideetarik bat da hau, eta egokia izan daiteke bereziki jendeen prekarizazio ekonomiko eta sozialaren testuinguruan.

”



ERAGILEEN
BEHAKOA



Jean-Romain
Lestanguet

Garapen-zuzendaria –
Habitat Sud Atlantic

Nortasun agiria

1922an sortutako
Bizilekuaren Erakunde
Publikoa, 2017ko
urtarrilaren 1az geroztik
Euskal Elkargoari lotua
Tel. zk.:
05 59 58 40 00
contact@ophsa.fr

*Baliatu beharreko aukerak

2017ko irailean Tolosa Okzitaniako Frantziako Errepublikako lehendakariak abiarazi zuen "Logement d'abord" ("Lehenik bizitegia") planaren eta aterperik gabeko jendeen egoeraren kontrako borrokaren helburua da lehentasunezkoa izan dadin jendeek bizitegia zuzenean eskuratzea, etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko. Beraz, egungo testuingurua proiektu berriak sortzearen aldekoa da. Hala, "Larriki baztertutako jendeak" Interes Nazionaleko Manifestaziorako Deia estatuko planaren** 40 irabazleetarik bat izan zen Atherbea (**larriki baztertutako egoeran diren 1000 pertsona baino gehiagori laguntzen die planak, eta funtzionamendu gastuetan 15 milioi euroko kostua du). Hala ere, Ipar Euskal Herriko lurren eta etxeen merkatuaren tentsio handia oztipo argia da proiektu horiek sortzeko, lur faltagatik.

2.5 - ELKARGOARI BAKARRIK EZ DAGOZKION IHARDESPENAK...

SOLIHA

Ekarritako ihardespenak

Estatuarekin eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluarekin lankidetzan, SOLIHAREN Gizarte ekintzako zerbitzuak (haietan Etxebizitza Eskuratzeko Bulegoak) aukera ematen du urtero 850 familia baino gehiagori laguntza soziala ekarri eta bizitegi soluzioak aurkitzeko. Bestalde, tokiko elkargo anitzen kontura, SOLIHAK aldi baterako eta larrialdiko ehun bizitegi baino gehiago kudeatzen ditu Ipar Euskal Herri osoan, lehentasunezko beharrei buru egiteko. SOLIHAK, halaber, ehun bat arra-alokatze garatu ditu bizitegi pribatu eta publikoen multzoetan, beharrak asetzeko; helburua da, familien egoera egonkortzen denean, kontratu iraunkorrak sinatzea.

Zerrendatutako beharrak

Kalitate oneko eta alokairu onargarriko bizitegi bat eskuratzeko berebiziko garrantzia dauka oraindik ere, eta, aldi berean, tentsio-iturri gero eta handiagoa da. SOLIHAREN Helburu Sozialeko Etxe Agentziak (550 bizitegi) neurri emandako laguntza eta, baldintzapean, fiskalitate oso interesgarria eskaintzen dizkie jabe arrandan emaila pribatuei. SOLIHAK Ipar Euskal Herri osoan Herriko Etxeekin hitzartutako bizitegiak kudeatzeko ingeniariak eskaintzen du ere.

Nortasun agiria

1966an sortutako elkarte,
Interes Orokorreko Gizarte Zerbitzuaren
ezagutza duena
Tel. zk.: 05 59 46 31 31
actionsociale.paysbasque@solih.fr

Habitat et Humanisme

Ekarritako ihardespenak

Habitat et Humanisme elkartearen helburu nagusia da bizitegiaren bitartez jendea birgizarteratzea. Horretarako, bultzatzen ditu egoiliarren aldean boluntarioak egotea, auzo orekatuetan bizitegiak bilatzea eta bizitegiak eraikitzeke kapitala garatzea. Alokataileek hiru urte arteko laguntza jasotzen dute, bizitegi sozial batean modu iraunkorrean bizitzeko. Habitat et Humanisme Pyrénées-Atlantiques-ek (HHPA) bermatzen du, halaber, baliabide urriengatik edo bizitzako gorabeherengatik zuzenbide komuneko bizitegirik eskuratu ezin duten pertsonen aldi baterako aterpetzea.

Zerrendatutako beharrak

HHPA jabe solidarioen bila dabil, bere ekintza garatu eta nekezian diren pertsonentzako bizitegien multzoa zabaldu ahal izateko apartamentuak utz diezazkieten. HHPA auzo "orekatuetan" bizitegiak "hartzen" ahalegintzen da gizarteko aniztasuna sustatzeko. Gainera, kasu ematen du boluntario talde txiki bat ez dadin bizitegietatik urrun egon, egoiliarrei laguntza segurtatzeko.

Nortasun agiria

1985ean sortutako elkarte
Tel. zk.: 05 47 92 20 20
pyrenees-adour@habitat-humanisme.org

BIZI IBILBIDE BATEN ADIBIDEA - Michel, jabea

“Arras lasai naiz: sekula ez nuen pentsatu apartamentu bat alokatzea hain erraza zenik!”

Dirua bazterturik nuen, erabaki nuen apartamentu bat erostea; nik, erretetarako, beste bizitegi bat hartu nuen. Esperientzia txar anitzen berri izan nuen, alokatzearen kudeaketa arrandan emaila sozial baten esku utzi nuen. Existitzen ziren dispositiboaren berri harturik, Habitat et Humanismeri nire hautuaren berri eman nion berehala, bizitegia Jabe Solidarioa dispositiboaren baitan onar zezan. Elkarrekin aldeko iritzia adierazi ondoren, akta pribatua eta behin betiko saltze agiria izenpetu genituen notarioarenean. Anartean, elkarrekin bizitegi motari zegokion familia baten sarrera prestatu zuen. Hitzarmenean honakoak zehaztu ditugu: bizitegia zenbat denboraz ezarriko den alokatzaileen eskura, alokairuaren prezioa (urteroko berrikuspena, indize ofizialaren arabera) eta jabeakideko kargak. Segur da alokairuaren zenbatekoa merkatuko prezioak baino askoz apalagoa dela. Hala ere, zerga abantailek (alokairurako bitartekaritza) eta kudeaketaren lasaitasunak aise tipitzen dute prezio diferentzia:

- lehen alokatzailea bizitegira sartzen denetik beretik, alokairuak hilabete guzietan ordaintzen dira, bizitegia zenbait astez hutsik bada ere;
- bisita teknikoei esker, ohiko higadurak eragindako balizko arazoak konpon daitezke (adibidez, pertsia-na birakariak);
- alokatzaileei laguntza segurtatzeak ondorio gisa dakar bizitegia ongi mantentzen dela;
- andeatzerik gabe itzuliko delako segurtamena;
- hitzarmena berrikusteko aukera, zinez beharrezkoa bada.

Puntu praktikoa horiez gain, arras kontent naiz nire bizitegiak gizarte onuraren zinezko ezagutza duelako: nekezian diren pertsonen aukera ematen die kostu apaleko aterpea aurkitu eta oinarri berri batzuetatik berriz abiatzeko.



© Mathieu Prat

**Euskal Elkargoko
Gizarte Ekintzako Zentroa (EGEZ)
AUDAPekin lankidetzan**

Foch etorbidea, 15, CS 88 507, 64185 Baiona Cedex

Tel. zk.: 05 59 37 75 75

siege.cias@ciaspaysbasque.fr



CENTRE
INTERCOMMUNAL
D'ACTION SOCIALE

EUSKAL ELKARGOKO
GIZARTE EKINTZAKO
ZENTROA

